



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

BATZORDEAREN LIBURU BERDEA: ELIKAGAIEN ARLOKO EB-KO LEGEDIAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK

Liburu berdearen xedeak

Honako hauek dira helburuak:

1. Aztertzea legediak zein neurritan erantzuten dien kontsumitzaileen, ekoizleen, fabrikatzaileen eta merkatarien beharrei eta igurikimenei.
2. Aztertzea kontrol- eta ikuskatze-sistema ofizialen independentzia, objektibotasuna, baliokidetasuna eta eraginkortasuna areagotzeko neurriek ea ahalbidetzen duten oinarritzko xedeak lortzea, alegia, elikagai osasuntsua eta segurua bermatzea eta kontsumitzaileen gainerako interesak babestea.
3. Elikagaien legediari buruzko eztabaida publikoari hasiera ematea.
4. Batzordeari baimena ematea neurriak har ditzan, hala balegokio, elikagaien arloko Europako legedia garatzeko.

Elikagai arloko Europako legediaren xedeak

- ❖ Osasun publikoaren, segurtasunaren eta kontsumitzaileen babes-maila handia izango dela bermatzea.
- ❖ Bermatzea salgaien joan-etorri askea barne-merkatuan.

- ❖ Saiatzea legedia zientzia-probetan eta arriskuen balioespenetan oinarritzen.
- ❖ Bermatzea Europako industriaren lehiakortasuna eta garatzea industriaren esportazio-ahalmena.
- ❖ Industriak, ekoizleek eta hornitzaileek bere gain harraraztea elikagaien erantzukizun handiena, arriskuak aztertzeko eta gune kritikoak kontrolatzeko sistemen bidez (APPCC). Gainera, kontrol ofizialak eta egikaritze-xedapen eraginkorrak gauzatu dira.
- ❖ Bermatzea legedia koherentea, zentzuzkoa eta argia izango dela.

Araudiaren estrategia orokorra

- ♣ Segurtasun maila handiak eta kontrol publiko eraginkorrak murriztu ahal dute elikagaiekin lotutako osasun-alarmen kopurua. Alarma horiek eragin handia izan dezakete kontsumitzaileen eskakizunetan, industriaren onuretan eta enpleguan. Beraz, ezinbestekoa da legedia eta arau-esparrua eraginkorrak izatea.
- ♣ Industriari aukera eman behar zaio kontrolerako barne-prozedurak egin eta aplikatzeko, betiere, kontrol-sistema ofizialek eta eraginkorrek babesten badituzte.
- ♣ Beharrezkoa izan liteke berariazko legedi xehatua osatzea, higie eta segurtasun maila eskaseko ekoizpen-metodoen eragina estaltzeko erabiltzen diren tratamenduei dagokienez. Tratamendu horiek zailak izaten dira atzematen.
- ♣ Beste kasu batzuetan, nahikoa da arauen betekizunak argi idatzita egotea, xedea eta espero diren emaitzak garbi gera daitezen eta ez dadin beharrezkoa izan agintzea nola lortu behar diren zehaztutako xedeak.

Elikagaien arloko araudiaren estrategia horizontalak eta bertikalak

Oro har, lehentasuna eman zaie elikagai kategoria guztietan (gehigarriak, aromak, etiketatua, higiena eta abar) aplikatzen diren neurri horizontalei. Nolanahi ere, batzuetan beharrezkotzat jotzen da neurri bertikalak hartzea, bereziki, berariazko xede dietetikoak dituzten elikagaiei eta produktu izarduei dagokienez.

Lehen mailako ekoizpena eta animalia jatorriko produktuak arautzen dituzten arauak dagokienez, nahiago izan da ikuspegia sektoriala ematea. Dena dela, arau orokor batzuk ere hartu dira, batik bat, jatorrizko izendapenari eta ekoizpen ekologikoari lotuta.

Ikuspegi horizontalak egoeraren ideia orokorra izateko aukera ematen die eta legedia aplikatzen laguntzen die, bereziki, hainbat sektoretan dauden elikagai-enpresei; alegia, ekoizpen-sektorean ez ezik, merkataritza- eta banaketa-sektorean ere badauden elikagai-enpresei.

Ikuspegi bertikalak, berriz, aukera ematen du legedia sektore zehatz baten beharretara egokitzeko, betiere, helburu zehatzak dituzten neurriak beharrezkotzat jotzen badira. Halaber, araudi-estrategia integratua egiteko aukera ematen du, sektore jakin baten alderdi guztiak bilduko dituen.

3

Europako legediaren gardentasuna

Gardentasunaren oinarria honako hau da: erabakiak hartzeko prozesua gauzatu aurretik edo gauzatu bitartean, araudi bateratuak ukitzen dituen interes sozioekonomikoen inguruko kontsulta egokia egitea. Eraginkorra izateko, kontsulta ez da izango soilik proposamen baten alderdi teknikoari buruz. Gizarte arloko solaskideei aukera eman behar zaie iruzkinak egin eta informazioa aurkezteko, aurreikusitako legediaren tratamenduaren eta proposatutako neurrien abantailen eta desabantailen inguruan.

Elikagaien inguruko Kontsultarako Batzordea eratu zen, elikagaien sektoreak eragiten dituen talde sozioekonomikoen ordezkariak biltzeko: nekazaritza, merkataritza, kontsumitzaileak, industria eta langileak.

Kontsultarako Batzordearen bilkurak eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da agiriak aurrerapen nahikoaz banatzea bilkura egin aurretik, eta partaide bakoitzak agiri horiek aztertzea ordeztan duen interes taldearekin.

Araudiak zuzentzarauen alternatiba

Zuzentzarauen ordeztan araudiak erabiltzeak honako abantaila hauek izan ditzake:

- ❖ Araudiak erabiltzeak ahalbidetu egiten du legedia berdin aplikatzea barne-merkatu osoan.
- ❖ Araudiak erabiltzeak areagotu egiten du Europako legediaren gardentasuna.
- ❖ Nazio mailako araudia aplikatzea beharrezkoa ez denez, araudiak erabiltzeak erraztu egiten du Europako legediak azkar jardutea, zientziaren eta teknikaren eboluzioa aintzat hartzeko.

Europako legediaren transposizioa eta aplikazioa

Beharrezkoa da, batetik, zaintzea estatu kideek nola gauzatzen duten Europako zuzentzarauen transposizioa eta, bestetik, egiaztatzea Europako arauak behar bezala aplikatzen direla.

Europako legediaren transposizioari buruzko legedi nazionalaz gain, nazio mailako agintariak argibideak edo zuzentzarauak osatzen dituzte ikuskapenak egiten dituzten organo ofizialek aplika ditzaten. Zuzentzarau horien xedea da bermatzea legedia berdin aplikatzen dela estatu kide guztietan.

Hala ere, zuzentarau horiek arazoak sor ditzakete estatu kideek legedia modu ezberdinetan interpretatzen dutenean, eta, ondorioz, xedapenak ez direnean berdin aplikatzen barne-merkatu osoan. Horregatik da garrantzitsua gardentasunari eustea.

Azkenik, gardentasunari begira, alde kaltetu guztiak animatu behar dira argi hitz egitera Europako legediak aplikatzeari eta gauzatzeari buruz. Horretarako, estatu kideei kontsultak egin ahal zaizkien eta talde sozioekonomiko guztiek euren iritziak eman ahal dituzten foroa antolatuko da.

Kontrolatzea eta egikaritzea

EEko arauak kontrolatu eta gauzatzeko aradura, hasiera batean behintzat, estatu kideetako erakunde eskudunena da.

Europak kontrol arloan duen zeregin nagusia da egiaztatzea estatu kideek nola aplikatzen duten legedia euren herrialdeetan.

5

Elikagai produktuen kontrol ofizialak

Europako legediak ezarri egin ditu elikagaien kontrol ofizialen printzipio nagusiak. Kontrola honetan datza: ikuskapenak egitea, laginak hartu eta analisiak egitea, langileen higiena ikuskatzea, idatzizko materiala eta agiriak aztertzea eta enpresak egiaztatzeko sistema aztertzea.

Ikuskapenek honako fase guzti hauek hartu behar dituzte euren baitan: ekoizpen-, fabrikazio-, inportazio-, eraldaketa-, garraio-, banaketa- eta merkataritza-faseak.

EEko beste estatu kide baterako diren produktuei estatu kide berean merkaturatzeko produktuei egiten zaizkien kontrol berberak egingo zaizkie, eta produktu bakar bat ere ez da kontroletatik salbuetsiko estatu kide horretatik kanpo igorriko delako.

Gainera, estatu kideen arteko administrazio-lankidetzarako prozedurak egin dira kontrolarekin eta aplikazioarekin lotutako gaiei buruz; horrela bermatu egingo baita kontrolak EE osoan modu eraginkorrean eta modu berean aplikatzen direla. Hala, bada, Batzordeak urtero ezartzen du elikagaiak kontrolatzeko programa koordinatua. Estatu kideek datu estatistikoak trukatzeko dituzte honako alderdi hauei buruz: kontrol-sistemen funtzionamendua, egindako ikuskapen-kopurua eta egiaztatutako arau-hausteen izaera.

Herrialde industrializatu guztietako ikuskapenen xedea da egiaztatzea elikagaien adostasun helburuak betetze aldera enpresetako barneko kontrolak egiteko metodoak egokiak eta fidagarriak direla. Horrek esan nahi du baliabide publikoak modu eraginkorragoan erabiltzen direla; izan ere, horrela, ikuskapen-agintariak, batetik, jarduera kezkarriak dituzten enpresentzat neurriak ezarriko dituzte eta, bestetik, eta kontrol-sistema egokiak eta fidagarriak ezarri dituzten enpresetan ikuskapen ofizial gutxiago egingo dituzte.

Zehapenak

Barne-merkatuari buruzko legedia behin baino gehiagotan urratuz gero, estatu kideek ezarritako zehapenak nazio mailako legediaren xedapenetan ezarritako zehapenen baliokideak izango dira: eraginkorrak, proportzionalak eta disuasio-zehapenak.